

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

**DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL**

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 705.864 euroekin finantzatu ditu Erroko azpiegitura-obrak

*Kontzeju horretako hornidura-sareak, zolaketa eta argiztapena berri-  
tura dira, eta ura erregulatzeko ur-andelak eraiki dira Ardaiz, Zilbeti eta  
Bizkarretan*

Martes, 08 de enero de 2013

Landa Garapen,  
Ingurumen eta Toki  
Administrazioko kontseilariak  
Erroko kontzejuan egindako  
azpiegitura-obren irekieran  
parte hartu du gaur goizean.  
Toki Azpiegituren Plana 2009-  
2012aren (PIL) barnean  
dauden obra horiek Nafarroako  
Gobernuaren 331.676 euroko  
diru-laguntza izan dute  
hornidura-sareak berritzeko,  
kaleen zolaketarako eta argiztapen berria jartzeko, guztira 443.674 euroko  
inbertsioa eginez. Ekitaldian, harekin izan dira Toki Administrazioko  
zuzendari nagusi Francisco Pérez Arregui, bai eta kontzejuko lehendakari  
Iñaki Etxeberría ere; Erroko ibarreko alkate Enrique Garralda ere bertan  
izan da, beste udal-ordezkarri batzuen artean. Ondoren, agintariak  
Bizkarretako ura erregulatzeko andel berria bisitatu dute, inguruan Ardaiz  
eta Zilbetikoarekin batera eraiki diren hiru andeletako bat.



Esparza kontseilaria eta udal-ordezkarriak,  
Erroko kontzejuan.

Ibarreko zinegotziekin izandako bilkuran, Esparza kontseilariak  
Erroko ibarreko zinegotzi guztiek egin duten ahalegina azpimarratu du  
"ibarraren onura ahalbidetzen duten akordioetara heltzeko, gutxieneko  
udal-zerbitzuak bermatuta izan daitezten".

### Sareak berritzea, zolaketa eta argiztapena Erroko kontzejuan

Hornidura-sarea  
berritzeko lanak hiriguneko  
mendebaldeko hego-erdialdean  
egin dira, eliza eta eskolen  
arte, eta polietilenoazko  
hodiak erabili dira. Gainera,  
sare-hornidurak kaltetutako  
kaleak zolatu dira asfalto-  
zolarekin erdialdean eta



Esparza kontseilaria, Erroko zinegotziekin  
egindako bilkuran.

hormigoiarekin galtzada-harriekin zintarizatuz oinezkoen joan-etorrien alboko aldeetan. Halaber, kale horitan euri-uren sarea sartu da, PVC hodiekin. Argiztapen-obrak sareak berritzeko eta zolaketako toki berean gauzatu dira, eta honako hauek izan dira: zeuden aire-lineen ordez lurpeko kanalizazio berri bat jartzea eta elektrizitateko lau puntu berri jartzea (farol artistikoak 4 m-ko altuera duen ornamentazio-zutabearen gainean).

### **Ura erregulatzeko hiru andel berri Ardaiz, Zilbeti eta Bizkarretan**

Gainera, Nafarroako Gobernuak 374.288 euro jarri du Ardaiz, Zilbeti eta Bizkarretako kontzejuetan (Erroko Udalaren barnean daude) ura erregulatzeko hiru andel eraikitze eta, horretarako, 475.878 euro inbertitu da. Hiru kasuetan andelen ezaugarri tekniko nahiz eraikitze ezaugarriak antzekoak dira: hormigo armatuarekin eraiki dira bi basorekin eta dagokien giltza-kamerarekin, eta 150 metro kubikoko edukiera dute Ardaizen eta Zilbetin, eta 180 metro kubikokoa Bizkarretan. Hirurek hartune elektrikoa dute hipokloritoko dosifikatze automatikorako, ura desinfektatzeko. Gainera, Zilbetiko andelaren kasuan, 140 metro luzeko sarbideko bide berria egin da.

Guztira, Nafarroako Gobernuak aipatutako proiektu guztietarako 705.864 euro jarri du.